

ESKOLA ZONA/SEKTOREETAKO ETA LANDA IKASTETXE MULTZOKATUETAKO HEZKUNTZA EDO PSIKOPEDAGOGIA ZERBITZUETAN HEZKUNTZAREN ALDETIK ZAURGARRIAK DIREN IKASLEEI ETA HORIEN SENIDEEI LAGUNTZEKO ETA AHOLKUAK EMATEKO UNITATEEN PROGRAMA.

Suspertze planeko palanka-politiken barnean, zehazki hezkuntzari eta ezagutzari, etengabeko prestakuntzari eta gaitasunen garapenari dagokion VII. palankan 21. osagaia dago: "Hezkuntza sistemaren modernizazioa eta digitalizazioa, 0-3 urteko hezkuntza goiztiarra barne". Esparru horretan, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak SEMeko hezkuntza aldetik zaurgarriak diren ikasleei eta horien senideei laguntzeko eta aholkuak emateko unitateen lurralde-lankidetzarako programa garatu behar du, eskola zonetan/sektoreetan eta landa ikastetxe multzokatuetako hezkuntza-edo psikopedagogia-zerbitzuetan. Hori guztia ezarrita dago [BOE](#)n argitaratutako ebazpen batean.

Eskola zona/sektoreetako eta landa ikastetxe multzokatuetako hezkuntza- edo psikopedagogia-zerbitzuetan hizkuntzaren aldetik zaurgarriak diren ikasleei eta horien senideei laguntzeko eta aholkuak emateko unitateen lurralde-lankidetzarako programa 2021-2024 aldian garatuko da eta neurri berritzailea izan nahi du, berariazko eginkizun hau duena: zona edo sektore bateko ikaslerik zaurgarrienen hezkuntza-ibilbideei laguntza ematea (ikasle horiek funts publikoekin ordaindutako ikastetxeetakoak izanen dira eta Lehen Hezkuntzako 3. ikasmaitatik DBHren eta Batxilergoaren bukaerara arte ikasiko dute Oinarrizko Lanbide Heziketa eta erdi mailako heziketa zikloetako derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzak barne direla). Haren helburua da eskola-porrotari aurre egitea eta eskolan ikasi eta arrakasta lortzea, zonako edo sektoreko beste profesional batzuekin lankidetzan, autonomia erkidegoetan izanagatik ere orientaziorako baliabideak, hots, aniztasunari erantzutekoak, curriculumean atzean gelditzeari aurre egitekoak, orientazio pertsonal, akademiko eta profesionalerakoak, eta ebaluazio eta aholkularitza psikopedagogikorakoak.

Hezkuntzan eta prestakuntzan errepikatze-tasak eta behar baino lehenago eskola uzteko tasak nabarmen murrizten laguntzeko, Nafarroako Foru Komunitatean gizarte-hezitzaileen lanpostuak ezarriko dira; laguntza eta orientazioko unitateak (LOU) deituko dira. Unitate horiek laguntza eta aholkuak emanen dizkiete hezkuntza sisteman Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Mekanismoak finantzatutako programa.

Europar Batasunak finantzatutako programa, aipatu mekanismoaren esparruan eta Europar Batasunaren enblemapean.

errepikatzeko eta eskola uzteko arriskuan dauden ikasleei, eskola zona edo sektoreetan egonen dira, hezkuntza administrazioetako hezkuntzako eta psikopedagogiako orientaziorako ekipoen lurralde-antolaketa izanen dute eta landaguneetako ikasleen berezitasuna hartuko dute kontuan.

Zonako/barrutiko/landa ikastetxe multzokatuko hezkuntza baliabideekin eta baliabide psikopedagogikoekin lankidetzan, programaren **helburuak** honako hauek izanen dira:

- 1.- Lehen Hezkuntzatik hasita eskola absentismoari aurre egitea, laguntzeko ekintza koordinatuen bitartez.
- 2.- Derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza bukatu baino lehenago eskola-uztea murrizten laguntzea, prestakuntza-proposamen pertsonalizatuak eta komunitate-testuinguruan txertatutako tutorizazio eta orientazio akademiko-profesionalerako jarduerak diseinatu.
- 3.- Ikasle horien familiei laguntzea, eta trebetasun eta baliabide batzuk eskaintzea, hobeto uler ditzaten haien seme-alaben hezkuntza-prozesuak, eta horietan inplikazio handiagoa izan dezaten.
- 4.- Hezkuntzaren arloko erabakiak datuetan oinarrituta har daitezen sustatzea, datuetan oinarrituta, eta lankidetzaz-sareak indartzea, hezkuntza komunitate hedatuko pertsonen eta baliabideen artean.
- 5.- Lurralde Lankidetzaz Programaren (PROA+) edo zonan edo barrutian hezkuntzaren aldetik zaurgarriak diren ikasleen eskola arrakasta lortzera berariaz bideratutako ekintzak osatzea.

HARTZAILEAK

Funts publikoekin ordaindutako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikaslerik zaurgarrienei, errepikatzeko edo eskola sistema uzteko arriskuan daudenei, laguntza eta aholkuak emanen dizkiete horretarako sortu diren unitateek. Orientazio unitate horiek eskola zona edo sektoreetan kokatuko dira, hezkuntza administrazioetako hezkuntzako eta psikopedagogiako orientazioko ekipoen lurralde antolaketa izanen dute eta landaguneetako ikasleen berezitasuna kontuan izanen dute.

HEZKUNTZA ALDETIK ZAURGARRIAK DIREN IKASLEEI ETA HORIEN SENIDEEI LAGUNTZEKO ETA AHOLKUAK EMATEKO UNITATEEN EGINKIZUNAK ETA JARDUKETAK.

LAGUNTZA ETA ORIENTAZIOKO UNITATEEN (LOU) EGINKIZUNAK	NAFARROAKO EGINKIZUNAK	JARDUKETAK
- Lehen Hezkuntzako 2. ikasmailatik hasita errepikatzeko arriskuan dauden ikasleak identifikatzea, baita funtsezko konpetentziak erdietsi gabe DBH (Oinarrizko Lanbide Heziketa barne dela), erdi mailako heziketa zikloa edo Batxilergoa uzteko arriskuan daudenak. Horretarako, adierazle esanguratsuak erabiliko dira, hala nola familia egoera, absentismoa, bizikidetzaren kontrako ekintzak, eskolarekiko deskonexioa, curriculumean atzerapen metatua izatea, oso goiz errepikatzen hastea, eskolatu gabeko edo berandu eskolatutako ikasleak eta adierazle horien ondorioak egokitasun-tasan; halaber, ikastetxeek emandako informazioa baliatuko da, baita Haur Hezkuntzan ere, kasuak prebenitzeko asmoz.	- Ikastetxearekin eta/edo oinarrizko gizarte zerbitzuekin / auzoko unitateekin eta eskolako sustatzailearekin elkarlanean, hezkuntza aldetik zaurgarriak diren ikasleak identifikatzea, hots, absentismoko protokoloa irekia dutenak eta protokoloa Hezkuntza Departamentuko Inklusio Proiektuetarako Bulegora igorria dutenak. Absentismoa bi motatakoa izanen da: arina (justifikatu gabeko hutsegiteak % 25 izanen dira) eta larria (justifikatu gabeko hutsegiteak ordutegi-kredituko % 25etik % 50era bitartekoak izanen dira).	- Laguntza eta orientazioko unitateen (LOU) koordinatzaileari absentismo-protokoloak eskatzea. - Koordinatzea ikastetxeko zuzendaritzarekin eta/edo orientatzailearekin, tutoreekin/hezkuntza taldearekin eta eskolaren sustatzailearekin, horrelakorik balego, ikasleen gaineko informazioa erdiesteko eta jarduteko baterako ildoak ezartzeko. - Koordinatzea oinarrizko gizarte-zerbitzuekin eta/edo kanpoko beste baliabide batzuekin (osasun etxeko gizarte-laguntzailea, Haur eta Nerabeentzako Arreta Taldea (HNAT), Familietan Esku Hartzeko Programa Espezializatua (FEHP), Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Zentroa (HGOMZ)...). - Ikastetxeetako zuzendaritzekin eta orientazioko langileekin berrikustea Ikasle Absentistentzako Harrera Plana, berrinkorporazioa eskaintzeko ikasle horien beharretara egokituta.

Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Mekanismoak finantzatutako programa.

Europar Batasunak finantzatutako programa, aipatu mekanismoaren esparruan eta Europar Batasunaren enblemapean.

		- Hezkuntza Departamentuak ezar ditzakeen jarduketak, programaren garapen ezin hobea lortzeko.
- Lehen Hezkuntzatik hasita, hezkuntza ibilbidean ikasle horiei laguntzea, ordura arte eskuratu ez dituzten ikaskuntza aberatsagoak izanda, hezkuntza formalaren eskakizunak erdiesteko laguntza emanda eta bidean aurkituko dituzten oztupoak gaingiduta. - Orientazio Akademiko eta Profesionalaren Planarekin, Tutoretza Planarekin eta Bizikidetza Planarekin (Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua) zerikusia duten ekintzetan parte hartzea. Ekintza horiek ikasle horiei bideratutakoak izanen dira, jarduketa pertsonalizatuak eginen	- Ikasleen ibilbide pertsonala, hezkuntzakoa eta profesionala laguntzea, bakarka eta ikastetxeko Zuzendaritzarekin/Ikasketa Burutzarekin, Orientazioarekin koordinatuta, eta, ikastetxeko planekin eta proiektuekin lotuta, ekintzak egitea (lehentasunez Tutoretza Plana, Bizikidetza Plana, Harrera Plana eta Orientazio Akademiko eta Profesionalaren Plana). - Adierazitakoarekin loturik eta ikastetxeetako orientazio departamentuekin elkarlanean, metodologiak eta jarduketak egitea, ikasleek laneko munduarekin harremanak izan ditzaten, ingurune soziokomunitarioarekin elkarlanean.	- Laguntza eta Orientazioko Unitatearen (LOU) banakako jarraipena egitea ikasleen tutorearekin eta gainerako irakasleekin, Laguntza eta Orientazioko Planean (LOP) esku hartzeko baterako ildoak diseinatuta. - Ikasleei eta haien familiei laguntzearen arloan beharrezkoa den dokumentazioa prestatzea (esku-hartze erregistroak, egunerokoa, Laguntza eta Orientazioko Plana (LOP), memoria...). - Jarraipena jasotzen ari diren ikasleen irakaslanaren koordinazio- eta ebaluazio-bileretara joatea. - Banakako esku-hartzea, irakasleekin, sustatzaileekin, orientazioko langileekin elkarlanean, jarraipena jasotzen ari diren ikasleek absentismoa egiten badute eta/edo eskolara modu ez-erregularrean badoaz. - Laguntza ematea ikasleei eta haien familiei, orientazio akademiko-profesionala ematearekin lotutako tramiteak egiteko. - Laguntza fisikoa ematea ikasleen eta haien familien orientazio akademiko-profesionalean eta ikastetxekoak ez diren orientazio akademiko-profesionaleko jardueretan.

Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Mekanismoak finantzatutako programa.

Europar Batasunak finantzatutako programa, aipatu mekanismoaren esparruan eta Europar Batasunaren enblemapean.

dira eta, ikasleekin eta haien familiekin eta ikastetxeko koordinazio organoekin egindako banakako tutoretzen bitartez, jarraipena egingen da. - Ikasleek lan-munduarekin eta komunitate-inguruarekin harremana izateko jarduketak eta metodologiak garatzen laguntzea.	- Hezkuntza aldetik zaugarriak diren ikasleen familiei bakarkako laguntza ematea beren seme-alaben hezkuntza prozesuetan, eskola prozesuetan eta erabaki akademiko-profesionalak hartzean.	- Hezitzailea ikasleei eta haien familiei aurkezteko bilera, egoera ezagutzeko eta harremanak sakontzeko hitzordu berriak ezartzeko. - Ikasleen eta haien familiaren egoera baloratzea eta diagnostikatzea. - Ikasleekin eta haien familiekin batera diseinatzea gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzearen helburuak eta egin beharreko jarduketak eta, orobat, konpromiso zehatzak, lorgarriak eta ebaluagarriak ezartzea eta Laguntza eta Orientazioko Planean zehaztea. - Laguntza eta Orientazioko Unitateak (LOU) ikasleari eta haren familiari laguntza ematea, itzultzen den lehen egunetik eskola prozesua normalizatu arte. - Gatazkak ebazteko bitartekaritza, gatazka horien jarraipena jasotzen ari dire ikasleak eta/edo haien familiak ukitzen dituztenean. - Esku-hartze zuzena ikasleekin eta haien familiekin eskola bizitza kudeatzeko zailtasunak daudenean, Ikastetxeko Bizikidetza eta Harrera Planeko jarraibideen arabera. - Hezkuntza Departamentuak ezar ditzakeen jarduketak, programaren garapen ezin hobearen lortzeko.
- Tutoreari, orientazioko langileei eta zuzendaritza taldeko kideei laguntza duten ikasleen egoera zein den.	- Hezkuntza aldetik zaugarriak diren ikasleekin batera egindako Laguntza eta Orientazioko Programa (LOP) prestatzea eta haien familiekin partekatzea.	- Tutoreek eta hezitzaileek Laguntza eta Orientazioko Programa (LOP) prestatzea eta hartan sartzea landu beharreko helburuak, jarduketak hasierako proposamena, jarraipena...

Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Mekanismoak finantzatutako programa.

Europar Batasunak finantzatutako programa, aipatu mekanismoaren esparruan eta Europar Batasunaren enblemapean.

		- Artatutako kasuetan esku hartzeko eta haiei jarraipena egiteko esku-hartze prozedurako dokumentuak betetzea. - Hezkuntza Departamentuak ezar ditzakeen jarduketak, programaren garapen ezin hobea lortzeko.
- Elkarlanean aritzea zona edo sektoreko hezkuntza zerbitzuekin eta orientazio zerbitzuekin eta ikastetxeekin, etapen artean (Haur Hezkuntza-Lehen Hezkuntza; Lehen Hezkuntza-DBH; DBH-LH-Batxilergoa), trantsizio-prozesuak hobetzeko.	- Berariaz elkarlanean aritzea ikastetxeetako hezkuntza orientazioko zerbitzuekin hezkuntza aldetik zaurgarriak diren ikasleen hezkuntza-trantsiziorako prozesuetan (Haur Hezkuntza-Lehen Hezkuntza; Lehen Hezkuntza-DBH; DBH-LH-Batxilergoa-beste prestakuntza-aukera batzuk). - Aurrekoaren ildotik, bermatu beharko da Orientazio Kontseiluak (DBHko 2. eta 4. mailak) ikasle horien hezkuntza gaitasunak, mugak eta premiak jasotzen dituela eta tutorearekin lankidetzan aritzen dela haien hezkuntza edo prestakuntza aurrera joateko ibilbiderik onena diseinatzen.	- Parte-hartze aktiboa ikastetxeen arteko koordinazioan ikasleen trantsizioa errazteko (informazioa biltzea, helaraztea eta eskatzea...). - Ikasleei eta haien familiei laguntza ematea beste ikastetxe eta hezkuntza-etapa batzuetarako trantsizio-prozesuetan. - Ikastetxean berriki sartu diren ikasleei harrera egitea, ikasle horiek datozenean beste ikastetxe batzuetatik, beste hezkuntza-sistema batzuetatik, prestakuntzako beste etapa edo modalitate batzuetatik eta jarraipena egin behar zaienean. - Hasierako laguntza ematea beste ikastetxe batean berriki sartu diren ikasle absentistak badira. - Ikasle horien familiei harrera egitea. - Ikasle horiekin hezkuntza arloan esku hartzeko behar diren baliabideak eskatzeko beharrezkoak diren kudeaketak egitea. - Aholkuak ematea eta elkarlanean aritzea tutorearekin eta irakasle-taldeko gainerako irakasleekin jarraipena jasotzen ari diren ikasleen Orientazio Kontseilua prestatzeko, ikastetxeak hala beharko balu.

Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Mekanismoak finantzatutako programa.

Europar Batasunak finantzatutako programa, aipatu mekanismoaren esparruan eta Europar Batasunaren enblemapean.

- Aurrekoaren ildotik, bermatu beharko da Orientazio Kontseiluak (DBHko 2. eta 4. mailak) ikasle horien hezkuntza gaitasunak, mugak eta premiak jasotzen dituela eta tutorearekin lankidetzan aritzen dela haien hezkuntza edo prestakuntza aurrera joateko ibilbiderik onena diseinatzen.		- Hezkuntza Departamentuak ezar ditzakeen jarduketak, programaren garapen ezin hobea lortzeko.
- Behar den Haurtzaroaren Sarean sartzea eta hartan parte hartzea, prebentzio, esku-hartze eta jarraipenerako ekintzak sustatzeko, familiarekin eta komunitate-inguruko bidezko entitateekin elkarlanean.	- Absentismoari eta ikastetxera modu irregularrean joateari aurre egitea, dagokion Haurtzaroaren Sarean aktiboki parte hartzea eta ingurune sozio-komunitarioko bidezko entitateekin elkarlanean aritzea.	- Gizarte-zerbitzuen zonetan dagoen Haurtzaroaren Sarearen bileretara joatea eta haietan parte hartzea (ikastetxea non dagoen, haietan). - Sareari hautemandako kasuen berri ematea; kasu horietan esku hartuko da eta baterako jarduketak ezarriko dira. - Komunitate-mailan prebentzio-jarduketak egiteko aukerak proposatzea sareari. - Ikastetxeko absentismoagatik edo hartara modu irregularrean joateagatik jarraipena jasotzen ari diren ikasleekin zuzenean esku hartzen ari diren beste zerbitzu batzuekin koordinatzea (Oinarrizko Gizarte-Zerbitzua (OGZ), Haurrei eta Nerabeei laguntzeko Taldea (HNLT), Familietan Esku Hartzeko Programa Espezializatua (FEPE)). - Jarraipena egiten ari zaien ikasleak ikastetxera bertaratzea aldi baterako etenda badute, esku hartzen ari diren beste entitate batzuekin baliabideak kudeatzea. - Ikasleekin eta haien familiekin esku hartzen ari diren entitate publiko pribatuekin koordinatzea. - Hezkuntza Departamentuak ezar ditzakeen jarduketak, programaren garapen ezin hobea lortzeko.
- Askotariko ikaskuntza-esparruak hobetzen laguntzea, testuinguru ez-formaletan eta	- Askotariko ikaskuntza-esparruak hobetzen laguntzea, testuinguru ez-formaletan eta	- Eskolaz kanpoko ordutegian jarraipena jasotzen ari diren ikasleendako baliabide soziokulturalen, eskolako eta

Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Mekanismoak finantzatutako programa.

Europar Batasunak finantzatutako programa, aipatu mekanismoaren esparruan eta Europar Batasunaren enblemapean.

informaletan askotariko planteamenduak sustatzen lagunduta, funtsezko gaitasunak (pertsonen artekoak, komunikaziokoak eta ezagutzakoak) garatzeko, hezkuntzako trantsizioak errazten dituztelako.	informaletan askotariko planteamenduak sustatzen lagunduta (pertsonen arteko garapena, garapen soziala eta garapen kognitiboa erraztuko duten eskolaz kanpoko kultura-esperientziak emanen dizkiete testuinguru horiek ikasle zaurgarriari).	kirolekoen gaineko informazioa: beste entitate batzuen errefortzu-programak, udalen kirol jarduerak, beste entitate batzuek kudeatutako bestelako kultura jarduerak... - Kudeaketetan laguntza ematea, jarduera haietan sartzeko beharrezkoak direnean. - Ikasleen aurrerapen akademikoa kitzikatzeko, jarraipen koordinatua egitea, ezartzen den baldintzetan, ikastetxeen eta elkarteetan, kirol entitateen edo bestelako entitateen artean (artatutako ikasleak haietara joanen dira). - Hezkuntza Departamentuak ezar ditzakeen jarduketak, programaren garapen ezin hobea lortzeko.
--	---	---

Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak zein Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Mekanismoak finantzatutako programa.

Europar Batasunak finantzatutako programa, aipatu mekanismoaren esparruan eta Europar Batasunaren enblemapean.